



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2021/22 denboraldia

## 36. ZIRKULARRA

### ERREGE KOPAN SAILKATZEKO FASEA

2023-2024 denboraldian Errege Kopako aurreko fasean parte hartuko duen lurralde-mailako euskal kluba nor den jakitekok, EFF-FVFko Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak erabakitako lehiaketa-oinarrien arabera, sailkapen-fase hori honako arau hauen arabera antolatzen da:

#### 1. Parte-hartzaileak

Lurralde-kategoria gorenetakoa bakoitzean bigarren postuan dauden klubek (erregelamendu-xedapen bidez bigarrenak Errege Kopan parte hartzerik ez badu, hurrengo sailkatuak jokatuko du):

- A.D. San Viator (Alava)
- C.D. Santurtzi (Bizkaia)
- Oiartzun K.E. (Gipuzkoa)

#### 2. Txapelketa-sistema

Lehiaketa instalazio neutral batean egingo da, hiruak. Aukeratutako instalazioa Beasaingo Loinaz futbol-zelaia da.

Partidak berrogeita bost minutuko iraupena izango dute (45 m), eta larunbatean, ekainaren 10ean, jokatuko dira. Partiden hurrenkera honako hau izango da:

- C.D. SANTURTZI – A.D. SAN VIATOR 17.00etan
- Galtzailea – OIARTZUN K.E. 18.00etan
- Irabazlea – OIARTZUN K.E. 19.00etan



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

### 3. Epaileak

Norgehiagokak zuzentzeko izendatutako epaileak Hirugarren Mailakoak izango dira, hiru Lurralde Batzordeetako bakoitzetik bat izendatuko da, eta txandakatu egingo dira laguntzaile eta epaile nagusi gisa jarduteko. Partida bakoitzeko epaile nagusia probintzia desberdinekoa izango da, norgehiagokako talde lehiakideena ez bezalakoa.

Laugarren epaile bat izendatuko da.

Arbitraje-ordainagiriak zati berdinketan ordaindu beharko dituzte klubek, lehiaketan parte hartzen amaitu ondoren. Horretarako, banku-transferentzia egin beharko diote Epaileen Euskal Batzordeari, eta horrek kontu-zenbakia eta ordaindu beharreko zenbatekoa jasoko dituen dokumentua bidaliko dizkie.

### 4. Diziplina Batzordea

Fase Erregularra (Liga) amaitzean, esku hartzen duten guztien kargu-hartzeen indarreko zikloak automatikoki baliogabetuko dira.

Ligan ezarritako etete-zehapenei dagokienez – Dela ohartarazpenak metatzeagatik, dela kanporatzeagatik –, ez dira indargabetuko, eta hiruan bete beharko dira.

Norgehiagokak amaitzean, epaile-aktak Euskadiko Federaziora bidaliko dira, Diziplina Batzordeak bere epaia eman eta helaraz dezan, hala badagokio.

Horren berri ematen zaie parte hartzen duten klubei, lurralde-federazioei eta Epaileen Euskal Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzaten.

Bilbo, 2023ko ekainaren 5a

KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## **ERREGE KOPARAKO SAILKAPEN-FASERAKO ARAU OROKORRAK, HIRUNAKA SISTEMA.**

### **JOKALARI KOPURUA**

Talde bakoitzak 18 jokalaria aurkeztu ahal izango ditu lehiaketa osorako. Klubek, lizentziekin batera, deitutako hemezortzi jokalarien zerrenda aurkeztu beharko diete elkargokideei. Zerrenda horretan, bi partidetarako izena, abizenak eta dortsal finkoa agertu beharko dira, partida bakoitzean jokalaria titularrak markatuz.

### **JOKALARIEN ALDAKETAK**

Partidetan zehar, gehienez hiru ordezkapen egin ahal izango dira, gehienez ere ordezko zazpi ordezkoren artean, talde bakoitzak partidaren hiru etenalditan, epaileak baimena eman ondoren.

### **KANPORATZEAK**

Lehenengo partidaren kanporaturiko jokalaria oro ezin izango da bigarren partidako jokalaria-zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

### **BERDINKETAK**

Balitzko berdinketak EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 101.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- a) Txapelketaren partida guztiak kontutan harturik, jasotako eta sartutako golen diferentzia handienaren arabera.
- b) Sartutako gol kopuru handienaren arabera, txapelketa osoan zehar lortutako gol kopurua kontutan harturik.
- c) Elkarren artean jolastutako partidaren emaitzaren arabera.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazlea, bigarren partida jokatze aldera.

### **BALOIAK**

Beroketa egiteko, klub bakoitzak egoki irizten dituen beste baloi eramango ditu.